



# Eskolan euskara ardatz: ertzak aztertzen



**Uzt. 05 - Uzt. 07 2022**

**Kod. H11-22**

**Mod.:**

Aurrez aurrekoa

**Edizioa**

2022

**Jarduera mota**

Uda Ikastaroa

**Data**

Uzt. 05 - Uzt. 07 2022

**Kokalekua**

Elbira Zipitria zentroa

**Hizkuntzak**

Euskara

**Balio akademikoa**

30 ordu

**Antolakuntza Batzordea**



# Azalpena

## Alderdi didaktikoen eta metodologikoen garrantzia murgiltze- eta mantentze-prozesuak arrakastatsu izateko.

- Ahozko interakzioa oinarri, ahozko gaitasuna xede,.
- Jakintza-arlo eta une guztietan euskarazko komunikazio-gaitasuna --ere-- ikasgai.

## Gaitasuna eta erabilera helburu, antolaera eraginkorrenaren bila.

- Erabileraren beharra: hizkuntzak erabiltzeko irizpideak eskola zein gela barneko dinamiketan eta harremanetan.
- Ikasleak eta irakasleak antolatzeko irizpideak: ikas-taldeak, azpitaldeak, irakasleen elkarlana, irakasleen lantaldeak...

## Helburuak

Gaur egun gure eskoletan murgiltze- eta mantentze-prozesuen garapen egokiari begira aurrean ditugun korapilo eta ertz esanguratsuenak aztertzea.

Ikasleen euskarazko komunikazio-gaitasuna eta erabilera hobetzeko, ikastetxeetan<sup>(1)</sup> kontuan eduki beharreko metodologia- eta antolakuntza-alderdiez gogoeta egitea.

<sup>(1)</sup> Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan

## Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



# Programa

## 2022-07-05

09:00 - 09:05 Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena

Jardueraren aurkezpena

**Iñaki Biain Salaberria** | G02 Berritzegunea, Irun. - HN aholkularia.

---

09:05 - 09:30 "Alderdi didaktikoen eta metodologikoen garrantzia murgiltze- eta mantentze-prozesuak arrakastatsu izateko. Gaia kokatzeko sarrera."

**Josune Zabala Alberdi** | Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. Eusko jaurlaritza - Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaria

---

09:30 - 11:30 Mahai ingurua: "Ahozko interakzioa oinarri, ahazko gaitasuna xede."

**Karmele Perez Lizarralde** | HUHEZI, Mondragon Unibertsitatea - Irakasle eta ikerlaria  
**Maidar Huarte Abasolo** | EHU, Bilboko Irakasle Eskola - Irakasle eta ikerlaria  
**Mikel Aingeru Fernandez Sánchez** | Lantziego ikastola HLHI - Irakaslea

---

11:30 - 12:00 Atsedena

---

12:00 - 14:00 Mahai ingurua: "Jakintza-arlo eta une guztietan euskarazko komunikazio-gaitasuna --ere-- ikasgai."

**Nagore Murua Uria** | Bergarako Maria Lagundia Ikastetxea - Irakaslea  
**Maite Iñarra Lapuerta** | Bergarako Maria Lagundia Ikastetxea  
**Eneritz Larrañaga Garro Larrañaga** | HUHEZI, Mondragon Unibertsitatea - Irakasle eta ikerlaria  
**Iñaki Mundiñano Larraza** | Altsasu BH Institutua

---

## 2022-07-06

09:00 - 09:30 "Gaitasuna eta erabilera helburu, antolaera eraginkorrenaren bila."

**Joseba Ibarretxe Fernandez De Larrinoa** | Berritzegune Nagusia. Hezkuntza Saila. - HN koordinatzailea

---

09:30 - 11:30 Mahai ingurua: "Erabileraren beharra: hizkuntzak erabiltzeko irizpideak eskola zein gela barneko dinamiketan eta harremanetan."

**Eider Saragueta** | EHU\_ Donostiako Hezkuntza Fakultatea, Dream ikertaldea - Irakasle eta ikerlaria  
**Bēñat Garaio Mendizabal** | Soziolinguistika Klusterra - Aholkulari eta Ikerlaria  
**Inma Muñoa Barredo** | Irakaslea

---

11:30 - 12:00 Atsedena

---

12:00 - 14:00 Mahai ingurua: "Ikasleak eta irakasleak antolatzeko irizpideak: ikas-taldeak, azpitaldeak, irakasleen elkarlana, irakasleen lantaldeak..."

**Mitxel Elortza Exea** | Arnas Dezagun taldea - Irakasle eta gurasoa  
**Iñaki Biain Salaberria** | G02 Berritzegunea, Irun - HN aholkularia  
**Josu Etxaburu Osa**  
**Inma Muñoa Barredo** | Irakaslea

---

**2022-07-07**

09:00 - 11:00 "Gogoetan eta eztabaidan sakontzeko saioa, lehen aztergaia: "Alderdi didaktikoen eta metodologikoen garrantzia murgiltze- eta mantentze-prozesuak arrakastatsuz izateko"."

Talde txikietako dinamikak eta bateratze-saioa

**Karmele Perez Lizarralde** | HUHEZI, Mondragon Unibertsitatea - Irakasle eta ikerlaria  
**Maidor Huarte Abasolo** | EHU, Bilboko Irakasle Eskola - Irakasle eta ikerlaria  
**Mikel Aingeru Fernandez Sánchez** | Lantziego ikastola HLHI - Irakaslea  
**Eneritz Larrañaga Garro Larrañaga** | HUHEZI, Mondragon Unibertsitatea - Irakasle eta ikerlaria  
**Nagore Murua Uria** | Bergarako Maria Lagundia Ikastetxea - Irakaslea

---

11:00 - 11:30 Atsedena

---

11:30 - 13:30 "Gogoetan eta eztabaidan sakontzeko saioa, bigarren aztergaia: "Gaitasuna eta erabilera helburu, antolaera eraginkorrenaren bila""

Talde txikietako dinamikak eta bateratze-saioa

**Eider Saragueta** | EHU\_ Donostiako Hezkuntza Fakultatea, Dream ikertaldea - Irakasle eta ikerlaria  
**Beñat Garaio Mendizabal** | Soziolinguistika Klusterra - Aholkulari eta Ikerlaria  
**Mitxel Elortza Exea** | Arnas Dezagun taldea - Irakasle eta gurasoa  
**Yolanda Olasagarre Mendinueta** | EIBZ, Hezkuntza Departamnetua, Nafarroa - Aholkularia eta irakasleen prestatzailea  
**Iñaki Biain Salaberria** | G02 Berritzegunea, Irun. - HN aholkularia.

---

13:30 - 14:00 "Antolaketa alderdiak, alderdi didaktikoak bermatze aldera Sakontzen, eztabaidatzen: elkar-jartze saioa" Itxiera

---

## Zuzendaritza



### **Iñaki Biain Salaberria**

Eusko Jaurlaritza/Gobierno Vasco, G02 Berritzeguneko HN aholkularia

---

Pedagogian Lizentziaduna. Eskola Orientatzaile gisa hasi nintzen lanean 1983an. 1989an Hezkuntzako Euskara Teknikari moduan hasi nintzen, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuan. Han euskarazko ikastereduen erazpenarekin eta garapenarekin, curriculumarekin, hizkuntza-proiektuarekin, hizkuntzaren didaktikarekin eta irakasleen prestakuntzarekin erlazionatutako jardueretan aritzeko aukera izan nuen. 2001etik hona HN aholkulari lanetan ari naiz Irungo Berritzegunean. Bertan ikastetxearen hizkuntza normalizazioarako proiektua eta hizkuntza proiektua, hizkuntzaren curriculum eta ikas-irakaskuntza izan dira lan eremurik ohikoenak 'Hezkuntza eta Hizkuntza Proiektuak' materiaren irakasle izan naiz Mondragon Unibertsitatearen EKOMU (Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan) masterrean. Azken ikasturte honetan 'Elkarhitz' eta Berbalapiko' proiektu pilotuetan parte hartzeko aukera izaten ari naiz.

## Irakasleak



### **Mixel Elortza Exea**

---

Musika Hezkuntzan eta Haur Hezkuntzan diplomatua. Gradu Profesionala pianoko espezialitatean Gasteizko Jesus Guridi kontserbatorioan. Gaur egun Gasteizko Vera-Cruz ikastetxean irakasle. Bertan zuzendaritzan jardun dut eta baita hizkuntza proiektuan eta irakurketa planean ere. Etengabeko formazioan: azken 4 urteetan Project Zero proiektuaren barnean hainbat formazio jaso ditut: Alde batetik Iruñean Harvard-eko unibertsitateak antolatuta "Comprensión para un mundo complejo" eta bestetik TRILEMA enpresarekin batera PROJECT ZERO metodologiari lotutakoak 3 ikasturtez. Bestalde, irakurketa-idazketa, klaustroen antolaketa, eskola kudeaketa, ingelesa, Gela Aktibatuz, BAPNE, ORFF, ikaskuntza kooperatiboa eta bestelako formazioa ere jaso dut. Bestalde, Arnas Dezagun taldearen bozeramailea naiz eta haur euskaldunak ez sakabanatzeko lanean diardugu.



### **Josu Etxaburu Osa**

HEIZE, Zuzendari-ohia

---


JOSU ETXABURU OSA - Ondarroan jaioa 1961ean - Magisteritza ikasketak Filologia alorrean. - Euskal Filologia ikasketak egina. - Ikastetxeen zuzendaritzan Graduondoa - Euskal Kulturaren Graduondoa - Linguistikan Masterra IBILBIDE PROFESIONALA: - Irakaskuntza munduan ibilbide luzea: 32 urte - Ibilbide honetan, itunpeko ikastetxean, irakaskuntza kooperatiban eta Irakaskuntza Publikoan aritua - Azken 20 ikasturteak Elorrio Institutuan Euskara eta Teknologia irakasle gisa. - Urte betez Berritzegune Nagusian "Lidergoa eta Kalitatea ikastetxe publikoetan" lantaldeko arduraduna ZUZENDARITZAN IBILIBIDEA: - 3 urte Lea-Artibai Teknik Ikastetxeko Ikasketaburua. - 16 urte Elorrio Institutuko zuzendari - DANTZERTIko (Arte Dramatiko eta Dantza Goi Mailako Eskola) zuzendari BESTE ERANTZUKIZUN BATZUK: - 15urteetan BIHEko (Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Publikoetako Zuzendarien Elkarte) presidente. - 2 urteetan HEIZEko (Herri Ikastetxeetako Zuzendari/Zuzendaritza Taldeen Elkarte) presidente



### **Mikel Aingeru Fernandez Sánchez**

---

Lehen Hezkuntzako maisua. Lan-ibilbidea: ○ 26 urte hezkuntzan (10 urte ikastolen sarean eta 16 sare publikoan) ○ Berritzeguneko aholkulari (3 urte) ○ Lehen Hezkuntzako tutorea



## **Beñat Garaio Mendizabal**

Soziolinguistika Klusterra, Elebilab ikerketa Taldea

---

Doktoretza tesia egiten ari den soziolinguista gaztea da. Bere ibilbidea hizkuntza gutxituen biziberritzearen eta soziolinguistikaren ikerketan (50 aurkezpen eta 30 argitalpen zientifiko inguru ditu) eta bi esparru horien sentsibilizazioa eta sustapen ekintzak antolatzen oinarritu du (Hitz Adina Mintzo, adibidez). Sancho el Sabio Fundazioaren Ikerlari Gazteen Lehiaketa eta IkerGazte 2 Kongresuko Giza Zientzietako poster aurkezpen onena sariak irabazi ditu, besteak beste. 2014-2015 ikasturtean Londreseko SOAS unibertsitatean MA Language Support and Revitalisation masterrean ohorezko matrikula lortu zuen.



## **Eneritz Larrañaga Garro Larrañaga**

HUHEZI-MU

---

Berrikuntza eta esku-hartzea testuinguru kulturantz eta eleanizetan taldeko ikerlaria da Eneritz Garro Mondragon Unibertsitatean. Irakasle ikerlari honek Euskal Filologia ikasketak EHUn 1998an burutu eta doktore tesia aurkeztu zuen (EHU-UPV 2007 "(Euskal Filologia eta Linguistika, Jendaurreko debeteak euskaraz. Diskurtso erreferituaren azterketa)"). Mondragon Unibertsitatean, Humanitate eta Hezkuntza Zientzietako Fakultateko Hizkuntza eta Literatura gunean ari da. Didáctica de la lengua y la literatura irakasten du.



## **Maider Huarte Abasolo**

UPV/EHU

---

Deustuko Unibertsitatean Ingeles filologian lizentziatu nintzen 1998an eta ondoren, 2007an, EHUKo Euskal Filologia eta Hizkuntzalaritza programan doktorego tesia defendatu nuen (Ergatiboaren jabeak: ikerketa esperimental bat eta beraren emaitzak). Ordutik 2021era Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolan Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saileko irakaslea izan naiz. Aholkularitza lanetan ere ibili naiz, Haur Hezkuntzan ahozko adierazpenaren eta ulermenaren inguruan eta Lehen Hezkuntzan irakurriaren ulermenean, batez ere. Aurten, berriz, EHUKo Bilboko Hezkuntza Fakultatean aritu naiz irakasle eta ikerlari. ELEBILAB (Elebitasunaren Laborategia) ikerketa taldeko kidea ere banaiz.



### **Joseba Ibarretxe Fernandez De Larrinoa**

---

Zientzia Fisikoetan lizentziatua, Astrofisika espezialitatean, Madrilgo Universidad Complutensean, 1990ean. Bigarren Hezkuntzako irakaslea 1991tik aurrera, EAEko irakaskuntza publikoan. Arrigorriaga BHiko Matematika eta Teknologia irakaslea 1997tik 2018ra. Arrigorriaga BHiko Hizkuntza Normalizazioko arduradun teknikoa 2001etik 2008ra. Arrigorriaga BHiko ikasketa burua 2008tik 2012ra. Basauri-Galdakaoko Berritzeguneko Hizkuntza Normalizazioko aholkularia 2013tik 2016ra. Berritzegune Nagusiko Hizkuntzaren Normalizazioko Programaren arduraduna 2019tik gaurdaino.



### **Maite Iñarra Lapuerta**

Mariaren Lagundia ikastola

---

Bergaran jaioa, 1983an Magisteritza eta Psikopedagogia HUIHEZIN eginak. 17 urte irakasle lanetan eta Bergarako Mariaren Lagundia Ikastolan azken 7 urtetan. Irakasle lana egiteaz gain, Hizkuntza Normalizazioko arduradun Teknikaria izandakoa, Eleaniztasun proiektuaren gidari, Pedagogia Batzordeko kide gaur egun eta Urrezko Txantxangorriko talde motorraren kide izan da. TBL (Thinking Based Learning) Teacher eta Coach ziurtagiriak lortu zituen 2019an Robert Swartzen gidaritzapean eta gehitzeko, i(r)akaskuntza esanguratsuen eta unibertsalean murgildua dagoela esango genuke.





Euskal Hizkuntza eta Literaturako irakaslea. Zenbait urtez EIBZn ahokulari lanetan aritutakoa eta Altsasu BHI In Ahozkotasuna proiektuko koordinatzaileetako bat. Gaur egun, Altsasu BHIko zuzendari.



### **Inma Muñoa Barredo**

Ikastolen Elkartea

---

Inma Muñoa Barredo (Donostia, 1967). Deustuko Unibertsitatean Euskal Filologia ikasi ondoren, Soziolinguistikaren inguruko gradu ondoko ikasketak egin zituen EEBBetan (University of Illinois at Urbana-Champaign). 2001 urtean Ikastolen Elkartearen Eleanitz proiektuan hasi zen lanean, eta gaur egun "Hizkuntz Egitasmoak" taldeko kidea da Ikastolen Elkartean.



### **Nagore Murua Uria**

---

Urretxun jaioa, 1975ean, Ingeles Filologia ikasketak EHU In Gasteizen eginak. 22 urte irakasle lanetan, azken 19ak Mariaren Lagundia Ikastolan. Zuzendaritzako kide izan da azken 12 urtetan eta darrai. Irakasle lana egiteaz gain, Hizkuntza Normalizazioko arduradun Teknikaria izandakoa, Pedagogia Batzordearen buru gaur egun eta Urrezko Txantxangorriko talde motorraren kide izandakoa da. TBL (Thinking Based Learning) Teacher eta Coach ziurtagiriak lortu zituen 2019an Robert Swartzen gidaritzapean eta gehitzeko, i(r)akaskuntza esanguratsuen eta unibertsalean murgildua dagoela esango genuke.



### **Yolanda Olasagarre Mendinueta**

EIBZ-Nafarroako Gobernua

---

Soziologia eta Zientzia Politikoetan Lizentziatua (Deustuko Unibertsitatea, 1989). Hizkuntza-Plangintza

Graduondoko Unibertsitate-Diplomatua (EHU, 1994). "Adimen-gaitasun handiko ikasleen diagnostikoan eta heziketan" Unibertsitate-aditu titulua (UNED, 2011). 2006an hasi nintzen Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroan (EIBZ, Nafarroako Gobernua, Hezkuntza Departamentua) jarduneko irakasleen prestatzaile gisa zenbait formazio sortu eta ematen. Batez ere, honako arlotan aritzen naiz: ikasleen ahozko komunikazio-gaitasunean, ikasleen hizkuntzarekiko motibazioan eta adimen-gaitasun handiko ikasleen arretan. Prestakuntzaz gain, irakasleei baliabideak eta laguntza eskaini behar zaiela sinetsita nago eta horregatik sortu ditugu "Ahozko hizkuntza irakastea" webgunea eta "Motibazioa Sustatzeko Baliabideak" bloga. Arlo horiek ikerketarekin lotzea beharrezkoa dela pentsatuta, DBHko ikasleen hizkuntza-atxikimendua hobetzeko ikerketa eta esku-hartzea burutu genuen 2016an. Adimen-gaitasun handikoen gaiarekin lotuta koblog pertsonala: <https://adimengaitasunhandiak.eus/> Twitter kontua: @yolarbizu



### **Karmele Perez Lizarralde**

---

Berrikuntza eta esku-hartzea testuinguru kulturantz eta eleanizetan taldeko ikerlaria da Mondragon Unibertsitatean. Irakasle ikerlari honek Deustuko Unibertsitatean, euskal Filologia ikasketak burutu (1989), Itzulpengintza masterra egin (EHU, 1999) eta doktore tesia aurkeztu zuen Mondragon Unibertsitatean (2014). Egun, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, Hizkuntza eta Literatura gunean dihardu hizkuntzaren eta literaturaren didaktikan. Bere lan ibilbidean hainbat artikulu idatzi eta proiektu bideratu ditu Esteka honetan ikusgai: <https://www.mondragon.edu/eu/ikerketa-transferentzia/berrikuntza-hezkuntzan/ikerketa-transferentzia-taldeak/-/mu-inv-mapping/ikertzaile/karmele-perez-lizarralde>



### **Josune Zabala Alberdi**

---

Eusko Jaurlaritzan, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaria

---

Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaria Eusko Jaurlaritzan. Euskal Filologian lizentziatua (EHU, 2002), Hizkuntzen aditu titulua eskuratua (Mondragon Unibertsitatea, 2005) eta Euskal ikasketetan doktorego programa eta ikerketa gaitasuna burutua (EHU, 2008). Lan ibilbidean, euskara eta bere irakaskuntzaren alorra landu du, batez ere: helduen euskalduntzean euskara irakasle eta trebatzaile (AEK eta udal euskaltegiak, 1999-2004); Euskara Biziberritzeko planetan aholkulari (Azpeitiko euskara patronatua, 2004-2005), eta Mondragon Unibertsitatean irakasle (HUHEZI fakultatea, 2004-2008 eta 2012-2014). Ikerketari dagokionez, HIJE taldeko (Hizkuntzaren jabekuntza eta erabilera) eta Eusko Ikaskuntzako Hezkuntza saileko partaide ere bada, eta Soziolinguistika Klusterrean ahozkotasanari buruzko ikerketa eta formazio ezberdinak gauzatu ditu. Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendari lanetan dihardu egun Eusko Jaurlaritzan.



## **Eider Saragueta**

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, irakasle eta ikertzailea

---

Eider Saragueta Hezkuntza Zientziak saileko irakasle eta ikertzailea da Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean (UPV/EHU). Nazioarteko hainbat kongresutan parte hartu du eta estatuko nahiz nazioarteko aldizkarietan argitaratu du bere lana. Lehen Hezkuntzako irakasle ikasketak egindakoa da, Gizarte eta Kultur Antropologian lizentziaduna eta Eleaniztasuna eta Hezkuntza Nazioarteko Unibertsitate Masterra (EMME) egindakoa Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). 2019ko udan "Translanguaging hezkuntza-eleaniztunean. Ikerketa etnografiko bat" izeneko tesia aurkeztu zuen Jasone Cenoz katedradunak zuzenduta. Bere ikerketa ildo nagusiak: Lehen Hezkuntzako ikasleen euskararen erabilera, horien identitatea eta gela barruan gertatzen den translanguaging-a aztertzea. Hori guztia, gela barneko etnografiaren ikuspegitik.

# Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2022-07-05 ARTE
Orokorra	110,00 EUR
<a href="#">Matrikula murriztua orokorra</a>	94,00 EUR
<a href="#">Matrikula exentzia</a>	77,00 EUR
<a href="#">Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernua</a>	94,00 EUR
<a href="#">Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza</a>	94,00 EUR
<a href="#">Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatutako kide</a>	94,00 EUR
<a href="#">Elkar</a>	94,00 EUR

# **Kokalekua**

## **Elbira Zipitria zentroa**

Ondarreta pasalekua, 18. 20018 Donostia

Gipuzkoa